

Makina bat kontu

JOXERRA AIZPURUA

INTERNET

IP protokoloa aldatuko da European

INTERNETEKO EDOZEIN WEB-ETAN sartzen garenean, aaa.bbb.ccc.ddd itxurako zenbaki batek bideratzen du gure eskaera. Zenbaki horiek IPv4 protokoloak dira eta guztira era horretako 4.000 milioi zenbaki erabili daitezke, hau da, 2^{32} zenbaki. Une honetan 700 milioi baino ez daude emateko eran, gainerakoak banatuta baitaude, eta 2011rako zenbaki guztiak banatuak izango direla uste da. Horren arabera, urte horretatik aurrera ezin izango lirateke Interneten web-helbide berriak aktibatu.

Baina ez da larritu behar, arazoa aurretiaz ikusita baitzegoen. Horrela, IPv6 formatua asmatu zen, eta horren bidez 2^{128}



Gaur egun Interneten sartzeko erabiltzen den protokoloa agortuta egongo da urte gutxi barru.

zenbaki bana daitezke. Beste hitz batzuekin esanda, munduko hondartzetan dauden hondar ale guztiak baino askoz ere gehiago.

Osasuna

JABIER AGIRRE

Kanabisa, erabilera terapeutikora bidean



Katalunian legezkoa izango da kanabisa hartzea kasu jakinetan.

BULARREKO MINBIZIAGATIK kimioterapia tratamendua jasotzen duten emakumeek kanabisetik eratorritako botika erabili ahal izango dute Katalunian, goragalearen kontrako botikek eraginkortasunik ez duten kasuetan. Birringailu eran merkaturatuko da Sativex izeneko botika hori; edukiontzi bakoitza kimioterapia saio bati dagokio, eta 35 euroren truke lortu ahal izango da.

Botika hori ez da oraindik medikamentu gisa onartu, baina mundu mailan aitzindaria izan den ikerketa batean bere eraginkortasuna frogatu ondoren —ikerketa Kataluniako Generalitat-eko Osasun Sailak bideratu du—, agintarien baimen bereziarekin erabili ahal izango da aurrerantzean, egoera terminalean edo oso larrian dauden gaixoekin eta modu konpasiboan. Horrela erabiltzen dira botika esperimentalak.

Sativex Kanadan baizik ez dago onartua oraingoan, esklerosi anizkoitza duten pazienteetan min neuropatikoa tratatzeko. Espainiako Estatuan eta Europako gainerako herrialdeetan ez dago erregistratua, eta ez da ageri indikazio terapeutiko nagusien artean ere.

Gorakoan kasuan, gaixoan %21,7k botaka egiteari utzi zioten kimioterapia zikloetan, kanabisaren eratorri hau hartu ondoren. Lau gaixotik hiruri antsietatea gutxitu zitzaion, eta guztiek hobera egin zuten oro har. Ikerketan 207 gaixok hartu dute parte. Horietatik, 32k esklerosi anizkoitzak eragindako min neuropatikoa zuten, 54k espastizitatea, 47k hainbat etiologiatako min neuropatikoa, 41ek minbiziak edota HIESak eragindako anorexia/kakexia sindromea, eta beste 33k —denak emakumeak— kimioterapia tratamenduaren ondoriozko goragaleak eta gorakoak.

Honakoa izan da administrazio publiko batek, kanabisaren erabilera terapeutikoaren aldeko eskari sozialari erantzunez, Espainiako Estatuan martxan jarritako aurreneko ikerketa. Gauzak ondo badoaz, beste autonomia erkidegoek ere eskatu ahal izango dute botika hori modu konpasiboan erabiltzea, behin Europako Medikamentuen Agentziak baimena eman ondoren.

Europako Batasuneko informazio gizarterako arduradun Viviane Reding komisarioak Europako estatuei abisua eman die, Interneteko formatu berria sustatu behar dela adieraziz. Frantzia, adibidez, hornitzaile bi baino ez dira hasi oraingoz protokolo berria eskaintzen: Free eta Nerim. Protokolo berrian aritzeak aldaketa ugari ekarriko ditu, router-etatik hasiz, sistema eragileetatik jarraituz eta egunero erabiltzen ditugun programetarako. Zer esanik ez, egun indarrean dauden web-helbideak ere migratu egin beharko dira. **I**

HEZKUNTZA

Kalkulagailuen eragina ikasleengan

GURE IKASLEEK oso gaztetatik erabiltzen dituzte kalkulagailuak ikasketetan. Hori horrela izanik, askok azaldu dute kezka horren egokitasunaz, batez ere lehen mailako ikasleen kasuan.

AEBetako Vanderbilt unibertsitateko ikerlari talde batek ikerketa interesgarriaren berri eman du *Journal of Experimental Child Psychology* aldizkarian. Bertan azaltzen denez, alde aurretik ongi kalkulatzeko ahalmena dutenei besterik ez die laguntzen kalkulagailuak.

Kalkulagailua erabiltzeak ez die ikasle guztiei modu berean laguntzen.

Eraitza horretara heltzeko lehen hezkuntzako ikasleekin egin zuten azterketa, era desberdinetan. Ondorioen artean zera izan da azpimarragarriena: jada biderketak ongi egiten dituztenei kalkulagailuak benetako laguntza eskaintzen diela, baina aldiz, eragin negatiboa du biderketetan onak ez direnen ikasketetan. Gainera, biderkatzaile onak dibertigarria irizten diote kalkulagailuarekin lan egiteari. **I**

JAKOBA ERREKONDO

mandio@zerain.com

Familiako zikulu-saltsa

DUCHESNE MARRUBIEN ERREGEAREN bihotzeko erregea, Luis XVI.a, lepatu zuten urtean, 29 zituen Ignacio Maria Ruiz de Luzuriagak. Bizkaitarra, bilaroztarra, areatzarra, medikua zen dagoenerako. Bergarako eskola entzutetsuan ikasi ondoren Paris, Londres eta Dunedin (Eskoziako hiriburua) egin zen mediku. Gero ur-aparretan bueltatu eta Madrilgo erregearen jarraieria eta ipurzerbitzaileen osagile izan zen. XIX. mendea abiatu ordurako txerto kontuetan hamaika lan egina zuen, baina hamalau moduan azaltzen omen zen, izan ere, ibilia zen toki guzti horietako mediku sozietateetako kide izan! Hamalau haizea laster baretu zion Jose I.a *Pepe Botella* erregeak, 1809an Frantziara deportatuta. Madrilgo lagun ugariei esker, luze gabe bueltatu zen. XIX. mendearen hogeita bigarren urtean hil aurretik lan mordoa argitaratu zuen, tartean, bizkaitar peto, itsasoan erabili beharreko higieñez batzuk.

Bilbok Mazarredo doktore garaikideari bezala Gasteizek Luzuriagari kalea eman bazion ere, bere ospearen ohoreak beste bide bat hartu zuen. Andeak mendikatearen Ozeano Bare alderako Peru eta, batez ere, Txileko lurretan bizi den landare familia bati bere izena jarri zitzaion: *Luzuriagaceae*. Familia horrek genero bakarra du, *Luzuriaga*, lau espeziez osatua. Ezagunena *Luzuriaga radicans* da, toki laioz eta ospeletan bizi den igokaria. Beste landareen gainean hazten da, igo eta heltzeko erro mehe batzuk luzatuz; hortik izenean *radicans* azaltzea. Lore zuriak eta fruitu gorriak harro erakusten ditu urte osoan eusten dion hostaje distiratsuren gainean. Negu partean ez soilte horrek lorategitarako egoki bihurtzen du eta gero eta sarriago erabiltzen da. Mito ugari lotzen ditu landare honek. Hango basoetako jentila, *trauco* deitzen duten izaki indartsua landare honekin jantzen da eta bere koxkor gorriak janez bizi da. Bere aihena erruz erabiltzen dute bertakoek ere, saskiak, erratzak eta abar egiteko.

Liliidae ordenako landare askorekin gertatzen den eran, honen sailkapenean ikaragarriko zikulu-saltsa dago, eta egun oraindik ez da ehunka urtetako istilu taxonomikoa isildu. Erabat argitu artean, Luzuriagatarrak hor izango dira. Bizkaiko Areatzan bateren bat ba ote da? Landare genero hau inongo ugariena den Txileko Izal departamentuarekin anaikidetu beharko dute...



Luzuriaga radicans.

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza 
interaktiboa

www.iametza.com
T.943 37 67 16